

Tokiko Agenda 21: nire udalerrian jardunez

Globalki pentsatu, tokian-tokian jardun



Tokiko Agenda 21 udalerrri mailako iraunkortasun-proiektua da; abiapuntua toki mailan izan arren, globaltasunean eragiteko helburua duena. Garrantzitsua da bai Udalek, bai herritarrek duten garrantzia azpimarratzea; lehenengoaren kasuan, erakunde aitzindariak direlako, eta bigarrenen kasuan, Gizarte Ekintzako Plana definitu eta praktikan garatzen dutelako.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**




Zer da Tokiko Agenda 21?

Integrazioan oinarritutako Udalaren Plan Estrategikoa da, iraunkortasun irizpideen bidez udalerriko politika desberdinak garatzen dituena: ingurumen arlokoak, ekonomikoak, kulturalak nahiz sozialak. Herritarren parte-hartzean du jatorria, eta adostutako erabakiak hartzen ditu, itun edota akordio gisa, udalerriko eragile desberdinen artean, hala nola, ordezkari politikoak, udaleko teknikariak, herritarrak eta bestelako eragileak.

Beraz, toki mailan Garapen Iraunkorra erdiesteko udalerriek erabiltzen duten tresna da, hau da, *gaur egungo belaunaldien beharrianak asetzen dituena, etorkizuneko belaunaldien beharrianak arriskuan jarri gabe.*


Udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu ahal izateko Toki Erakundeek jarraitzen duten metodologiak egiteko edota ezarpen-fase desberdinak ditu.

1. irudia: Garapen iraunkorrerako Tokiko Agenda 21k proposatzen dituen lau zutabeak



Iturria: Geuk egina.

2. irudia: Tokiko Agenda 21 gauzatzeko metodologia



Iturria: Geuk egina.

Azken urteetan bada indarra hartu duen gobernatzeko eredu berri bat, erabakiak hartzeko orduan herritarren eta toki-eragileen iritzia kontuan hartzea, alegia. Eredu berri horren helburua da, herrian bertan dauden sentsibilitate anitzak integratzea eta, horren bidez, erabaki egokiagoak hartu ahal izatea, gizartearen beharrianak ase aldera. Herritarren parte-hartze hori kontuan hartzea da, hain zuzen ere, Tokiko Agenda 21k barne hartzen dituen prozesuen funtsezko elementuetako bat, bai eta erronka nagusienetako ere.

Tokiko Agenda 21en testuinguru historikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen aplikazioa

3. irudia: Tokiko Agenda 21en esparrua eta testuinguru historikoa

NAZIOARTEAN

- Ingurumenari eta Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, "Lurraren Gailurra" (Rio de Janeiro, 1992).
- 21 Egitasmoa. Ríoiko Nazio Batuen Ekintza Egitasmoa.

EUROPAKO BATASUNEAN

- Aalborgeko Konferentzia +10 Etorbizunerako Inspirazioa
Aalborg-eko Gutuna: Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Konferentzia (Aalborg, 1994).
- EBko programak:
Garapen Iraunkorrerako Estrategia (2001)
Europako Estrategia 2020

ESPAINIAKO ESTATUA

Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia (2007)

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Garapen Iraunkorrerako EAEko Ingurumen Estrategia (2002-2020).
UDALSAREA21: Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.
EcoEuskadi 2020

BIZKAIA

Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010)
Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016)

ESKUALDEAN

UDALTALDE 21.

UDALERRIAN

TOKIKO AGENDA 21

Iturria: Geuk egina.

Tokiko Agendaren jatorria Ingurumen eta Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzian dago, hain zuzen ere, 1992an Rio de Janeiron egin zen **Lurrari buruzko Goi Bileran**. “XXI. mendeko garapen iraunkorrerako Egitasmo Globala” izenekotik sortu zen – 21 Egitasmoa-, aipatutako Lurrari buruzko Goi Bilera horren baitan, eta tokiko agintariei protagonismoa aitortzen die garapen iraunkor horretan. Bestalde, dei egiten die tokiko agintariei Tokiko Agenda 21 landu dezaten.



Agenda 21 iraunkortasuna lortzeko bideetako bat da.

Akordio hori oinarri hartuta, hainbat politika eta egitasmo garatu dira eta, horiei esker, mundu osoan milaka tokiko agintari inplikatu dira Tokiko Agenda 21 delakoaren prozesuetan. Horien artean aipatzekoak da Europaren aitzindaritzza, bereziki, “Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Konferentzia”, 1994an **Aalborg** hirian egin zena; konferentzia horrek 1200 tokiko agintari baino gehiago bildu ditu beren udalerrietan garapen iraunkorraren alde lan egiteko.

1999ko abenduan Helsinkin egindako bileran, Europako Kontseiluak Europako Batzordeari eskatu zion “epe luzerako estrategia proposamen bat presta zezala, garapen iraunkorrerako politikak ikuspegi ekonomiko, sozial eta ekologikotik biltzeko, 2001eko ekainean Europako Kontseiluari aurkeztu beharko zaiona”; hortik sortu zen **Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia**.

2010ean, Europako Batzordeak **Europako Estrategia 2020** jarri zuen abian, krisialdik irteteko eta EBko ekonomia hurrengo hamarkadarako prestatzeko. Batzordeak hazkunderako hiru eragile funtsezko identifikatu zituen, ekintza zehatzen bidez abiarazi beharko zirenak eremu nazionalen eta EBn: Hazkunde zentzuduna, hazkunde iraunkorra eta hazkunde integratzailea.

Espainiako Estatuan, Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia (2007) dago, EBren Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren baitan sartzen dena eta 2006an Bruselako Kontseiluan berritu zena, honako printzipio orokorrari jarraituz: “Gaurko eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea etengabe hobetuko duten neurriak erabaki eta prestatzea, baliabideak modu eraginkorren kudeatzeko eta erabiltzeko gai izango diren komunitate iraunkorrak sortuz, hartara, ekonomiak eskaintzen duen berrikuntza ekologiko eta sozialerako ahalmena baliatzeko, oparotasuna, ingurumenaren babesa eta kohesio soziala bermatuz”.



Eskola Agenda 21 delakoak oso garrantzitsuak dira Agenda 21en barruan.

Gure erkidegoari dagokionez, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) deritzonak honako eginkizuna du: euskal gizarteak erdietsi behar dituen ingurumen-helburuak ezartzea, egungo belaunaldiari bizi-kalitate hobereana bermatuz eta geroko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Europako eta nazioarteko hainbat forotatik egindako apustuarekin bat eginez, Eusko Jurlaritzak, Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoaren (IHOBE), Foru Aldundien eta Euskadiko Udalen Elkar-tearen (EUDEL) bitartez, **Udaltalde 21** proiektuak bultzatu ditu, Tokiko Agenda 21 diseinatu eta ezartze-ko hainbat udalerritan. Baterako ahalegin horri esker, 2002tik aurrera, **UDALSAREA 21** Euskal Udal Iraunkorren Sarea sortu zen; sare hori koordinazio eta lankidetzarako foro bat da, euskal udalerrietako Tokiko Agendak 21 dinamizatu eta udalek apurka-apurka bereganatzen dituzten Ekintza Planak bultzatzen dituen.

EcoEuskadi 2020 urte horretara begira ezarri den Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia da, eta, zentzu horretan, helburu estrategikoak ezartzen dituen tresna bat da, betiere iraunkortasunaren ikuspegi-tik egiten diren sektoreko planen baitan. EkoEuskadi 2020 baliagarria izango da “Garapen Iraunkorren” kontzeptuan sakontzeko, horrek dituen inplikazioak barneratuz, saileko eta sektoreko politikak diseinatze-ko orduan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, eta Bizkaian bereziki, udalerritan ezarri diren toki mailako iraun-kortasun politikek emaitza esanguratsuak lortu dituzte. 2001. urtean Tokiko Agenda 21en lehen proze-suak abian jarri zirenetik, aurrerapen esanguratsuak egin dira:

- Tokiko Agenda 21 **udal politikak sustatu eta antolatzeko baliozko tresna** gisa finkatu da, hala ingu-rumen arloko sentsibilizazioari dagokionez, nola herritarren parte-hartzeari dagokionez.
- EAEko Tokiko Iraunkortasunari buruzko 2009ko Txostenaren arabera, Tokiko Agenda 21 modu zaba-lean ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan; **218 udalerritan** aplikatu da guztira, hau da, udalerrri guz-tien %86,9an (Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %98,8).

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan, ezarpen-datu horiek udalerrien %100 hartzen dute, denak baitaude Tokiko Agenda 21 programan sartuta.
- 2005etik aurrera, udalerrri aurreratuenek beren urteko kudeaketan sartu dute Tokiko Ekintza Plana (TEP) **gauzatzearen ebaluazioa** eta iraunkortasun **adierazleen kalkulua**.
- **Toki mailako politiken** eta tresna nahiz baliabideen garapena, zenbait alorri aurre egiteko: aldaketa klimatikoa, biodibertsitatea, alde sozioekonomikoak, etab.



Pixkanaka-pixkanaka iraunkortasunera bidean.

Ondorioak

Tokiko Agenda 21, iraunkortasunaren printzipioen arabera udal kudeaketa aldatzeko tresna den heinean, eta garatzeko orduan herritarren parte hartzea kontuan hartzen duen heinean, baliabide garrantzitsua da gure ezagutza, interesa eta nahia hedatu eta kalitatezko ingurune bat eskuratzeko, ingurumenari, arlo sozialari, ekonomikoari nahiz kulturalari dagokionez.

Hori horrela, garrantzitsua da gure Udalera jo eta Tokiko Agenda 21ren egoerari buruzko informazioa eskatzea. Modu horretara, egitasmo horretan parte hartzeko eskura ditugun tresnak ezagutu ahalko ditugu (lan-batzordeak eta informazio batzordeak, iradokizunen postontziak, parte hartzen duten talde edo elkarten izenak...).

Erreferentzia bibliografikoak eta webgune interesgarriak

- Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea.
- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Eskola Agenda 21 eta Ingurugela-CEIDA.
- ONU ren 21 Programa.
- ICLEI, Iraunkortasunerako Udal Gobernuak.